

MAILEGUA

ZURE MAILEGUARI BURUZ JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA

ZER DA MAILEGU BAT?

Mailegu bat finantzeta produktu bat da eta CaixaBank Payments & Consumer-ek diru kopuru bat uzten dizu erosketa jakin bat egiteko edo zure eguneroko proiektuetakoren bat gauzatzeko, eta ondoren itzuli egin behar diozu hitzartutako hileko kuoten ordainketaren bitartez, kasuaren arabera, adostutako interesen zenbatekoa eta sortutako kostuak gehituz.

CaixaBank Payments & Consumeren, zure eskura jartzen dugu maileguen sorta zabala, zure finantza-beharretara ondoen egokitzen dena aukeratzeko.

Gure maileguak, nagusiki, lankidetzan aritzen garen gure kolaboratzaile/preskriptoreen bitartez eskaintzen ditugu (etxetresna elektriko edo altzari dendak, hortzetako klinikak, bizikleta dendak, motorren kontzesionarioak, etab.) haien denda eta/edo webetan **erosketak egin ahal izan ditzazun**. Gainera, **ibilgailu bat erosteko mailegu** bat kontratatzeke aukera ere eskaintzen dizugu, eta baita zure egunerorako **mailegu pertsonalak** ere.

Jakin behar duzun ezen kontratazioa, gehien bat, gurekin merkataritza-harremana duten kolaboratzaile/preskriptoreen saltoki/kontzesionarioen edo online bidez (azken aukera hori erabilgarri dagoenean) egiten bada ere, eta haiek arduratu arren gure bezeroen datuak eta dokumentazioa jasotzeaz kontratazioa egiteko, **mailegu hauek CaixaBank Payments & Consumer-ek kontratatzen dituela**.

Kontsumoko mailegu batekin mailegua lotzen den erosketa ordainduko duzu, hori egitean zure bankuko kontuko saldoa erabili gabe, eta CaixaBank Payments & Consumer izango da erosketa horren zenbatekoa zuzenean erosi duzun ondasunaren hornitzaileari ordainduko diona. Zenbateko hori hileroko itzuli beharko duzu, mailegatutako zenbatekoaren guztizkoa itzultzeko hitzartutako datara arte adostutako hileko kuota ordainduz. **Interesik gabeko kanpaina berezi bat izan ezean, kontratuaren bidez adostutako lotutako interesak ere ordaindu beharko dituzu hileroko.**

1. adibidea: Sandrari berogailua apurtu zaio abenduan, Gabonetako erosketen eta familia eta lagunekin egiten diren bazkari nahiz afarien ospakizunen erdian. Jaiegunak direla eta, gastuen igoera aurreikusten du eta horregatik uste du finantzatu egin behar duela 3.000 € inguruko kostua duen berogailu baten erosketa. Horregatik, Sandrak, galdaren instalazio enpresa bat dagoela ikusi du bere auzoan eta horrek interesatzen zaion galdararen erosketa-prezioa eta bere instalazioa finantzatzeko aukera eskaintzen du, CaixaBank Payments & Consumerek eskaintzen duen interesik gabeko 24 hilabateko kanpaina bereziaren bitartez, eta finantza-erakundeak instalazio enpresa horren aurrean tramitatzen du maileguaren ematea, 24 hilabeteke amortizazio-epearekin. Sandrak eskaintza hori aukeratuz gero, 125 € ordaindu beharko ditu 24 hilabeteetan zehar, interesik ordaindu gabe.

2. adibidea: Juanek merkatuan atera den azken ordenagailua erosi nahi du, baina 1.500 € balio ditu eta finantzatu egin nahi du ordainketa hori. Horren orde, antolatu dugun kanpaina bati esker, Juanek erosketa horren ordainketa zatikatzea erabaki dezake, horri lotuta diren interesekin, zenbatekoa ordaintzeko epe bat aukeratuta. Juanek erosketaren prezioaren zatikatzea + zatikatzea egiteko aukeratutako hilabetei lotutako interesei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko du.

Gainera, garrantzitsua da jakitea CaixaBank Payments & Consumeren mailegua gurekin zuzenean kontratatzeke aukera ere eskain diezazukegula, gure kolaboratzaile/preskriptore/kontzesionarioen bitartekaritza gabe, zure proiektuak edo ilusioak gauza ditzazun (adibidez, zure gela konpontzea, eraberritzeak, patinete bat erostea edo bidaia bat egitea). Kasu honetan, behin mailegua kontratatu ostean, emandako zenbatekoa jasoko duzu zure bankuko kontuan. Kasu honetan, behin mailegua kontratatu ostean, emandako zenbatekoa jasoko duzu zure bankuko kontuan, eta **12, 18 edo eskain diezazkizukegun hilabeteetan** itzuli beharko duzu. **Mailegu-modalitate horrek normalean interesen ordainketa dakar.**

Oraindik ez duzu argi? Ikusi bideo hau:

- **"Nola konparatu maileguak":**
<https://www.youtube.com/watch?v=6n3QpJmxgYA>

Eskaintzen dizkizugun maileguen ordainketa hileko kuotak ordaintzearen bitartez egiten da, eta horien zenbatekoa aukeratu ahal izango duzu kontratazioaren unean. Zure kontratuko Baldintza partikularretan eta hari lotutako (kontratua) amortizazio-koadroan adierazitako prezioa ordaindu beharko duzu, eta aldatu egingo da zatikapen epealdiaren arabera (12, 18, 24 edo eskaintzen dizugun eta zuk aukeratzen duzun kuoten kopurua). Zure kontratuaren Baldintza partikularretan eta bertan (kontratua) gehitzen dugun **amortizazio-koadroan** ikusi ahal izango duzu hilero

ordaindu behar duzun kopurua, kapital eta interesetan desglosatuta - interesik gabeko eskaintza bat ez denean-, eta baita mailegua ordaintzeari utziko diozun epea ere.

Gainera, lehen kuotarekin edo finantzatuta -kasu honetan emandako nominalaren zenbatekoan barne hartuko da- kobratu ahal izango dizugu ematen dizugun finantzaketa **zerbitzuarengatiko prezioa**, eta horren zenbatekoa ere ikusi ahal izango duzu zure kontratuaren Baldintza partikularretan.

GARRANTZITSUA: Aukeratutako hileko kuota zenbat eta handiago, orduan eta lehenago ordainduko duzu eman dizugun mailegua. Ondorioz, kredituaren kostua txikiagoa izango da, interesak denbora gutxiagoan ordainduko dituzulako, eta kuotaren zenbateko gehiena kapitala amortizatzerazuzenduko delako.

Adibidea: Gure preskriptoreen saltokietan erositako sofa, mahai eta bere aulkiak erosten badituzu 1.500 €-ko baliokoa, eta preskriptore horrek CaixaBank Payments & Consumerekin kolaboratzen badu eta erosketari hori finantzatzen badu erakunde horrek eskaintzen duen mailegu bat kontratatzearen bitartez, 12 hilabeteko amortizazio-epearekin, kontuan izanik urteko % 9,95eko ITNarekin (UTBa % 10,41), 1.582,06 € itzuli beharko dituzu 131,84 €-ko 11 kuotetan eta 131,82 €-ko azken kuotarekin.

Adibidea: Sandrak auto bat erosi nahi du eta CaixaBank Payments & Consumerek kolaboratzen duen kontzesionario batera bertaratzen da eta hark eskaintako finantzaketa interesatzen zaio. Kontuan izanik ibilgailuaren erosketari prezioa 29.106 € dela, finantzaketa zerbitzuaren prezioa 1.106 € dela (hori nominalean gehitzen da hori ere finantzatzeko) eta interes-tasa urteko % 3,99ko ITNa dela (UTBa % 5,08), 35.339,79 € itzuli beharko dituzu (horietatik 5.127,79 € interesei dagokie), 368,12 €-ko 95 kuotetan eta 368,39 €-ko azken kuotaren bitartez.

Halaber, jakin behar duzu **aldez aurretik ordaindu ahal izango duzula maileguaren zenbatekoa guztiz edo partzialki noiznahi**, idatziz guri jakinarazita. Ordainketa partzialek ezingo dute izan maileguaren bi kuoten batura baino txikiagoak. Zure kontsumitzaile egoeran, kontsumorako kreditu kontratuen Legearen ondorioetarako, kredituaren kostu osoa murrizteko eskubidea izango duzu, eta murriztapen horrek barnean hartuko ditu kontratuan geratzen den iraupenari dagozkion interesak eta kostuak, baita jadanik ordainduta daudenak ere. Gure finantzaketa guztiak tasa finkokoak direnez, konpentsazio bat kobra diezazukegu eta ez da izango aurretiaz itzulitako kapitalaren zenbatekoaren % 1etik gorakoa, dirua aurrez itzultzen denetik kontratua amaitu arte falta den epea urtebete baino gehiago bada; epe hori urtebete baino gutxiago bada, konpentsazioa ez da izango aurretiaz itzulitako kapitalaren zenbatekoaren % 0,5etik gorakoa. Zuk ordaindu beharreko konpentsazioaren zenbateko zehatza zure kontratuaren baldintza partikularretan ezarritakoa izango da.

Konpentsazioa ez da inoiz izango zuk dirua aurretiaz itzultzen duenetik kreditu kontratua amaitzeko adostu den datara arteko aldian ordainduko lukeena baino handiagoa.

Kontsumorako kreditu kontratuen Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren 30. artikulua eta ondorioz konpentsazioari buruz adierazitakoa ez zaie aplikatuko 75.000 euro baino gehiagoko maileguren kontratuei.

Garrantzitsua da jakitea, noiznahi ordainketa bat egiten baduzu partzialki, doan bidaliko dizugu **zure amortizazio-koadroa**, ordaintzeko geratzen zaizuna eta zenbat denboran zehar jakin dezazun.

Gainera, ezagutu egin behar duzu zer gerta daitekeen **ez badituzu zure ordainketa-betebeharrak betetzen**.

Zure ordainketa-betebeharra ez baduzu betetzen, CaixaBank Payments & Consumerrek behartuta egongo da berehala baliabideak bideratzera ordaindu gabeko zorra eguneratzeko, eta horiek dira **kobratze-kostuak**. 1º) CaixaBank Payments & Consumerrek hurrengo erreklamatuko dizu: i) jakinarazpen telematikoen bitartez (adib. SMS edo antzeko baliabideak); ii) posta elektronikoaren bidez eta/edo posta bidez bidalitako jakinarazpena eta/edo www.caixabankpc.com web-orriaren "PARTIKULARREN EREMU PRIBATUA" eremuan, CaixaBank Payments & Consumerekin komunikabide horiek adosten dituzunean; eta iii) CaixaBank Payments & Consumeren sistemetan agertzen den eta zuk emandakoa den telefono-zenbakira egindako telefono-dei bat edo gehiagoren bitartez (kopurua eta maiztasuna moldatu egingo da ordaindu gabeko eta bezero bakoitzaren egoera partikularretara, beti gutxienez bi (2) saiakera egingo dira zurekin harreman pertsonala ezartzeko) edo beste edozein metodo pertsonalizatu CaixaBank Payments & Consumeri ahalbidetuko diona zurekin harremanetan jartzea. Arrazoizko kobratze-kostuen konpentsazioa eta 15 € edo 35 €-koa diren kudeaketa horien arabera -bat edo beste ibilgailu bat erostera bideratutako mailegu desberdina den edo helburu honetarako den- (nahiz eta kobratze-kostuen kudeaketan balioztatutako kostua 40 €-koa izan bere ondorio partziala aurreikusten da, produktuaren tipologian ordaindu gabe dagoen batez besteko zenbatekoa artatuz) baldintza partikularretan beste prezio bat adierazi ezean (gailendu egingo da baldintza partikularretan adierazitakoa). 2º) Ez ordaintzeak 15 egun igaro ondoren jarraitzen badu, CaixaBank Payments & Consumerrek burofax bat edo horren baliokide den gehigarri bat ere bidali ahalko du, edukiaren eta ordainagiriaren ziurtagiriarekin. Bidalketa horren posta-kostua 24 €-koa da, gaur egun. 1. konpentsazioa: i) 20 edo 60 €-koak edo zor handiagoak soilik sortuko dira -bat edo beste ibilgailu bat erostera bideratutako mailegu desberdina den edo helburu honetarako den-; ii) soilik deskribatutako kobratze kudeaketa zehatzak egin ondoren; eta iii) ez ordaintze berak ezingo duelarik sortu konpentsazio bat baino gehiago. 2. konpentsazioa: i) 300 €-tik gorako zorretan soilik sortuko da; ii) ez

ordaintzeagatik burofaxa benetan bidali ondoren bakarrik; eta, iii) ez ordaintze berak ez du konpentsazio bat baino gehiago sortuko.

Kobrantsa-kostuak eta berandutze-interesak **kontzeptu ezberdinak** dira. Ordaindu gabeko zorra egiaz eguneratzera zuzendutako baliabideak, hain zuzen, kobrantsa-kostuak dira; berandutze-interesak da ordaintze ezagatik jasotzeko irabazia.

Berandutze-interesari dagokionez, hori sortuko da amaitutako eta ase gabeko kontratutik eratorritako zure konturako diru-betebeharrak ez betetzeagatik. Kasu honetan berandutze-interesak sortuko dira CaixaBank Payments & Consumeren alde, kontratuan zehaztutako interes arruntari edo ordainketa-interesari (ITN) bi (2) portzentaje puntu gehitu ondoren ateratzen den tasan, ordaindu gabekoa hasi den egunetik eta ordaintzen den arte. Horrek ez du kentzen aurreko paragrafoan aipatutako kontratuko konpentsazioa ere kobratzea.

Beste gauza bat!

CaixaBank Payments & Consumeren eskaintzen dugun kreditua babesteko borondatezko aseguruak kontratatzen baduzu, aseguruaren primari dagokion zenbatekoa kobratuko zaizu hileroko, hileko kuotarekin batera. Hileko primaren zenbatekoa izango da kontratuaren Baldintza Partikularretako "Aseguruaren primaren kostua" atalean adierazitako ehunekoa bider kredituaren saldo erabilia.

Jakin behar duzu CaixaBank Payments & Consumer entitatea VidaCaixari eta SegurCaixari lotutako banka-aseguru operadore gisa aritzen dela, Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aseguru-bitartekarien administrazio-erregistro berezian inskribatuta dagoela OV0077 zenbakiarekin, bertan egiaztatu ahal den bezala, eta egoitza Castellana pasealekua 44, 28046 Madril helbidean duela. Telefonoa: 91 339 7000; eta helbide elektronikoa: www.dgsfp.mineco.es.

ZEIN DA KONTRATAZIO-PROZESUA?

Mailegu baten kontratazio-prozesua

1. Aukeratu mailegu bat kontratatu nahi baduzu!

Lankidetzan aritzen garen kolaboratzaileen/preskriptoreen establezimenduetako batera joan eta mailegu bat kontratatu nahi baduzu merkaturatzen dituzten produktuen erosketaren prezioa finantzatzeko, edo CaixaBank Payments & Consumer-etik zuzenean finantzaketa produktu hori eskaintzen badizugu zure proiektuak gauzatzeko, pentsatu zure beharretara moldatzen den. Informazioa

emango dizugu kontratatuko duzun mailegu motaren inguruan, horren funtzionamendu eta ezaugarriei eta gisakoei buruz. Eta lotutako kosturik duen ala ez ohartaraziko dizugu.

2. ¡Personalízalo!

Aukeratu nola itzuli nahi duzun erabilitako kreditua.

3. Kontratu aurreko informazio ematea

Kontratatu aurretik, kontratu aurreko informazioaren dokumentua (INE) erakutsiko dizugu; bertan, maileguaren baldintza ekonomikoak zehazten dira. Eskainitako baldintzak bidaliko dizkizugu, 30 egunez mantenduko ditugu horiek, lasaitasunez irakurri eta gure eskaintza beste batzuekin aldera dezazun.

4. Sinatu kontratua!

INEa irakurri ondoren, kontratua erakutsiko dizugu. Irakurri eta, prest zaudenean, sinatu!

5. Atzera egiteko aukera

Behin kontratua sinatuta, 14 egun natural izango dituzu atzera egiteko (suntsitzeko).

a) Aukeratu mailegu bat kontratatu nahi baduzu!

Pentsatu mailegua zure behar, interes eta egoera finantzariora moldatzen den. Gure preskriptoreek nahiz guk beharrezko **azalpen guztiak** emango dizkizugu.

Mailegua **zurretzat egokia dela** zehazteko, informazio eta dokumentazioa eskatuko dizugu gure preskriptoreen bidez edo guk zuzenean eskatuko dizugu, zure **ondare, familia eta ingurune profesionala** ezagutzeko.

b) Pertsonaliza ezazu!

Zuk aukeratuko duzu zure behar eta ekonomiara ondoen moldatzen diren kuota kopurua eta zenbatekoa. Gogoan izan 20 €-koa izan beharko duela gutxienez hileko zenbatekoak.

c) Kontratu aurreko informazio ematea

Kontratua sinatu aurretik, Europako Informazio Normalizatua (INE) emango dizugu, hots, **kontratu aurreko informazioa**. Informazio hori entregatzeko betebeharra dugu, doan eta irauten duen formatu batean. Bertan, **kontratatu nahi duzun maileguaren alderdi garrantzitsuenak** aztertzen dira. **Garaiz emango dizugu**, kontratuarekiko betebeharririk izan aurretik; horrela, **merkatuko hainbat eskaintza alderatu ahal izango dituzu**, eta, horren arabera, **erabaki informatua hartu** kreditu-kontratu bat harpidetzeari buruz.

Informazio horren helburua da **beharrezko datu adina izatea**, beste kreditu-entitate batzuen eskaintzekin gurea **alderatzeko**, eta zure ekonomiaren arabera egokiena dena aztertzeko.

INEa paperean emango dizugu edota posta elektronikoko bidez bidaliko dizugu kontratua sinatu aurretik, erabiltzen duzun kontratazio-prozesuaren arabera:

- **Lineako kontratazioa:** informazioa prozesu-pantaila batzuetan agertuko zaizu, kontratua sinatu baino lehen. Deskargatzeko eta helbide elektronikora kopia bat bidaltzeko aukera izango duzu.
- **Aurrez aurreko kontratazioa gure preskriptore/kontzesionarioen zenbait saltokitan:** informazioa saltzailearen ordenagailuaren edo tabletaren bidez erakutsiko dizugu, eta kopia bat eman diezazutela eska dezakezu eta zure helbide elektronikora bidaliko zaizu beste kopia bat.

GARRANTZITSUA: Behin INE agiria eman dizutenean, hartu behar bezainbeste denbora mailegua kontratatu nahi duzun edo ez erabakitzeko. Alderatu merkatuan dauden beste eskaintza batzuekin, eta aztertu kontratatu nahi duzun produktuari buruzko informazioa eta aplikagarriak diren baldintza ekonomikoak (baldintzak INEn zehazten dira). INEn jakinarazten zaizkizun baldintza ekonomikoak 30 egunez eskainiko dizkizugu, jaulkipen egunetik hasita.

Gainera, aldez aurretik eskatuta, kontratu-proiektuaren kopia bat emango dizugu, doan, eskaera egiten den unean kreditu-kontratuarekin aurrera egiteko prest ez gaudenean salbu.

INE baten adibidea ikusi nahi al duzu? Sartu hemen.

OHARRA: INEaren adibidean ikusiko dituzun datu ekonomikoak (ITNa eta UTBa) ADIBIDEARENAK dira eta, beraz, agian ez dira izango zure maileguari aplikatuko dizkiogunak. Kontratazio prozesua abiarazi ez duzulako gertatu da, eta, horrenbestez, zure

egoera ekonomiko-finantzarioa ezin izan dugu aztertu; ondorioz, ezin dizugu esan zer baldintza ekonomiko aplikatuko zaizkion maileguari eta behartuta gaude maiz aplikatutako tasa batzuk erakustera.

d) Sinatu kontratua!

Behin kontratua sinatuta, haren kopia bat emango zaizu posta elektronikoko edo entrega fisiko bidez. Modu batean edo bestean sinatuko duzu, kontratazio-kanalaren arabera:

- **Kontratazioa preskriptoreen saltokietan:** aurrez aurre sinatuko duzu idatziz, modu digitalean edo sinadura-aplikazioan SMS bidez zure mugikorrera bidalitako zenbaki sekretua sartuz.
- **Lineako kontratazioa:** sinadura-aplikazioan SMS bidez bidaltzen zaizun zenbaki sekretua sartuz.

Gogoan izan kontratuaren beste kopia bat eska diezagukezula nahi duzunean, eta ahalik eta bizkorren bidaliko dizugu.

e) Atzera egiteko aukera

Tienes derecho a desistir, es decir, a renunciar al contrato suscrito para la contratación del préstamo o a dejarlo sin efecto, durante los primeros catorce (14) días naturales desde que se formaliza la operación. No es necesario que expreses motivo alguno.

Pasados estos 14 días, podrás cancelar el contrato unilateralmente en cualquier momento, pagando anticipadamente las cantidades que pudieras deber.

Atzera egiteko eskubidea duzu; hau da, mailegua kontratatzeke sinatutako kontratuari uko egiteko edo baliogabetzeko eskubidea, **sinatu ondorengo lehen hamalau (14) egun naturaletan.** Ez da beharrezkoa arrazoirik ematea.

14 egun horiek igarotakoan, edozein unetan alde bakarrez **ezezta dezakezu kontratua, zenbatekorik zor baduzu alde aurretik ordainduta.**

Idatziz jakinaraz dezakezu kontratuan atzera egitea edo ezeztatzea nahi duzula, euskarri elektronikoko iraukorrean hola@caixabankpc.com helbidearen bidez, edo paperean, hala erabakiz gero, Gran Vía Corts Catalanes 159-163, 08014 Bartzelona helbidera igorrita, edo Zuzenbidean jasotzearen eta

edukiaren egiaztapena ahalbidetzen duen onartutako beste baliabide baten bidez.

Halaber, jakin behar duzu maileguak **izaera loteslea duenean**, erositako ondasun edo zerbitzu finantzatuaren hornitzailearen aurrean zure eskubideak erabiltzeko aukera izateaz gain, Kontsumorako Kredituen Kontratuei buruzko Legean zehazten den moduan, CaixaBank Payments & Consumeren aurrean ere erabili ahal izango dituzu eskubide horiek lotutako kontratuari dagokionez, baldin eta eskakizun hauek guztiak betetzen badira:

- Lotutako kontratuaren xedeko ondasunak edo zerbitzuak, osorik edo partzialki, entregatu ez izatea edo bertan hitzartutakoaren arabera ez izatea.
- Zuzenbidean onartutako baliabideren bat erabilia, hornitzailearen aurka erreklamazioa egin baduzu, auzibidetik edo auzibidetik kanpo, eta pozik geratu ez bazara.

Maileguaren kontratuaren bidez finantzatutako ondasunen edota zerbitzuen horniketa kontratuen bati dagokionez, uko egiteko eskubidea erabiltzen duzunean, aipatutako finantzaketarekiko behartuta egoteari utziko zenioke, inolako zigorririk gabe. Hala ere, kasuaren arabera, finantzatutako kapitala pilatutako interesa gehituta itzultzera behartuta egongo zara, adostutako tasan eta aipatutako kapitalarekiko, maileguaren aipatutako kapitala erabili den datatik itzulera datara arte zenbatuta, eta epe horrek ezingo ditu gainditu hogeita hamar egun natural (30), uko egiteko jakinarazpenaren bidalketatik zenbatzen hasita; bestela, hitzartutako berandutza interesa sortuko da egun horretatik aurrera.

MAILEGUEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO

Jarraian, Espainiako Bankuaren banku-bezeroaren webgunea uzten dizugu, eskuragarri izan dezazun haien **simulatzailea, zenbat interes ordainduko zenituzkeen jakiteko, baita zenbateko epean amortizatuko (ordainduko) zenukeen zorra ere**, aukeratutako hileko kuotaren arabera:

https://clientebancario.bde.es/pcb/es/menu-horizontal/podemosayudarte/simuladores/simulador_prestamo_hipotecario_personal.html

Zure eskura jartzen ditugu Maiz egiten diren galderak (FAQ).

Horrez gain, zuk izan dezazun, erantsi egiten dizugu **PERTSONA FISIKOAK DIREN OHIKOENAK DIREN BEZEROEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN OHIKO ERAGIKETEN OHIKO KOMISIO ETA TASEI BURUZKO**

HIRUHILEKO INFORMAZIOA, (Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren 1. eranskina, kreditu-entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei zuzenduta, banku zerbitzuen gardentasunaren eta mailegu emakiden erantzukizunaren inguruan).

Amaitzeko, gogoan izan gure maileguak kontratatu baino lehen edo ondoren zalantzarik baduzu **gurekin harremanetan jar zaitezkeela** bitarteko hauen bidez.

Maiz egiten diren galderak:

1) Zer da mailegu bat?

Mailegu bat finantzeta produktu bat da eta CaixaBank Payments & Consumer-ek diru kopuru bat uzten dizu erosketa jakin bat egiteko edo zure eguneroko proiektuetakoren bat gauzatzeko, eta ondoren itzuli egin behar diozu hitzartutako hileko kuoten ordainketaren bitartez, kasuaren arabera, adostutako interesen zenbatekoa eta sortutako kostuak gehituz.

2) Mailegu bat kontratatzen baduzu, interesak ordainduko dituzu?

CaixaBank Payments & Consumerek eskainitako interesik gabeko kanpaina konkretu bat izan ezean, interesak ordaindu beharko dituzu, eta horiek kobratuko zaizkizu utzitako kapitala itzultzeko ordaindu beharreko hileko kuotetan.

3) Aldez aurretik guztiz edo partzialki mailegua itzul dezaket?

Sí, Bai, idatziz guri jakinarazita. Ordainketa partzialek ezingo dute izan maileguaren bi kuoten batura baino txikiagoak. Kredituaren kostu osoa murrizteko eskubidea izango duzu, eta murriztapen horrek barnean hartuko ditu kontratuan geratzen den iraupenari dagozkion interesak eta kostuak, baita jadanik ordainduta daudenak ere. Tasa finkoko eragiketetan bakarrik, konpentsazio bat kobratu ahal izango dizugu, eta ez da izango aurretiaz itzultitako kapitalaren zenbatekoaren % 1etik gorakoa, dirua aurrez itzultzen denetik kontratua amaitu arte falta den epea urtebete baino gehiago bada; epe hori urtebete baino gutxiago bada, konpentsazioa ez da izango aurretiaz itzultitako kapitalaren zenbatekoaren % 0,5etik gorakoa.

4) Nola kontrata dezaket mailegua eta zer eskubide ditut?

Zure eskura jartzen dugu (kontratazio-fluxuan agertuko da eta posta elektronikoki bidez bidaliko dizugu) Europako Informazio Normalizatua (INEa); hots, aukeratutako maileguaren kontratuari buruzko kontratu

aurreko informazioa. Garrantzitsua da arretaz irakurtzea eta, nahi izanez gero, merkatuko beste eskaintza batzuekin alderatzea. Bertan, baldintza ekonomikoak eta maileguaren kontratuari buruzko informazio garrantzitsua azalduko dizugu (atzera egiteko eskubidea, UTBa, ITNa, etab.). Hartu zure denbora.

Eskainitako baldintzak mantenduko ditugu 30 egunez, kontratua sina dezazun behin ondo pentsatu eta erabaki ostean, produktua zure beharretara egokitzen bada.

Hortaz, lerroa kontratatu aurretik, hurrengorako eskubidea duzu:

- Modu egokian kontratatu behar duzun produktuari buruzko informazio nahikoa jasotzea.
- Kontratu aurreko informazioa jasotzea (INEa, kreditu-lerroaren kasuan) sinatu aurretik, iraugarria den formatu batean.
- Hartu behar duzun denbora pentsatzeko eta mailegua kontratatu nahi duzun edo ez erabakitzeko, behin aplikagarriak diren baldintza ekonomikoak ezagututa (INEan zehazten dira).

5) Nola jakingo dut zer ordaindu behar dudan?

Zure kontratuan dauden Baldintza partikularretan eta amortizazio-koadroan zehazten dira kuota kopurua eta baita kontzeptu desberdinengatik ordaindu behar dituzun kopuruak (nagusiki, kapitala, interesak eta zerbitzuaren prezioa). Horretaz gain, harremanetan jar zaitezke CaixaBank Payments & Consumerekin, noiznahi, bezeroarentzako arretarako telefonoaren bidez, 900 101 601 zenbakian (astelehenetik larunbatera 09:00etatik 21:00etara), zure maileguari dagokionez, behar duzuna kontsultatzeko.

Gainera, doan eska diezagukezu amortizazio-taula bat, eta bertan xehatuko dizkizugu zure maileguaren zenbateko, aldi eta ordainketa-baldintzak.

6) Behin kontratua sinatuta, atzera egin dezaket? Edozein unetan utz dezaket bertan behera?

Bai, atzera egiteko eskubidea duzu; hau da, gure maileguetako bat kontratatuzeko sinatutako kontratuari uko egiteko edo baliogabetzeko eskubidea, sinatu ondorengo lehen hamalau (14) egun naturaletan. Ez dago arrazoirik eman beharrik kontratuari uko egiteko.

Lehen 14 egun horiek igarotzean, kontratua edozein unetan utz dezakezu bertan behera, zure aldetik, arrazoirik eman gabe, zor duzun zenbatekoa aldeztu aurretik ordainduta.

Idatziz jakinaraz dezakezu kontratuan atzera egitea edo ezeztatzea nahi duzula, euskarri elektronikoa iraukorrean hola@caixabankpc.com helbidearen bidez, edo paperean, hala erabakiz gero, Gran Vía Corts Catalanes 159-163, 08014 Bartzelona helbidera igorrita, edo Zuzenbidean jasotzearen eta edukiaren egiaztapena ahalbidetzen duen onartutako beste baliabide baten bidez.

7) Non kontsultatu dezaket sinatzen dudana kontratua? Kopia bat emango didazue?

Kontratuaren kopia bat jasoko duzu, noski. Kontratuaren kopia sinatua bidaliko dizugu formalizatzean edota posta elektronikoa bidez.